

Bibliaren itzulpenetik liturgiarako itzulpenera

Lorentzo Zugazaga Martikorena
Elizbarruti arteko Liturgi Euskaratzaile Taldeko kidea

Artikulu honetan, Elizen Arteko Bibliaren itzultzaile-taldearen eta Elizbarruti arteko Liturgi Euskaratzaile Taldearen esperientzietatik abiatuta, itzulpenari buruzko gogoeta zabala egiten da, baina, funtsean, Bibliaren itzulpenak eta liturgiarako itzulpenak dituzten ezaugarriak, erlazioak eta berezitasunak argitzeko asmoarekin. Horretarako, gaztelaniazko eta euskarazko hainbat itzulpenetako adibideak erabiltzen dira.

GAKO-HITZAK: Biblia-itzulpena · Liturgiarako itzulpena · Euskaratzea · Baliokidetasun funtzionala.

From Bible translation to liturgical translation

This article analyses the experience gained by the group of translators of the Basque Interconfessional Bible and the Interdiocesan Group of Basque Liturgical Translators and carries out an extensive reflection on translation with the goal of examining the characteristics, relationships and particularities of Bible and liturgical translation. The analysis is supported by examples drawn from several Spanish and Basque translations.

KEY WORDS: Bible translation · Liturgical translation · Translation into Basque · Functional equivalence.

Jasotze data: 2015-12-23 *Onartze data:* 2017-01-18

1. Gaiaren aurkezpena, esperientzia pertsonaletik abiatuta

Urteetako esperentziaz baliatuz eta hortik sortu zaizkidan bizipenek bultzatuta, gogoeta batzuk eskaini gura nituzke, jakingarri eta baliagarri izan litezkeelakoan¹.

Bibliaren edozein itzulpenek, zuzena izan gura badu, baditu bere baldintzak eta eskakizunak. Eta liturgiako itzulpenek berariazko berezitasuna dute, benetan eta zehatz aintzat hartu behar dutelako zein inguru berezi duten jomuga.

Helburuak eta jomugak hainbesteko zerikusia eta garrantzia ote dute, bada, itzulpenaren izatea bera eta jitea erabakitze eta determinatzeraino? Bibliaren itzulpena zelan ulertzen den eta zein itzulpen mota gura dugun argi erabakitzeak emango digu erantzun egokia.

Erakargarri egiten zait, benetan, gaia. Izan bere, Bibliazale amorratua izan naiz beti, eta nire bizitza guztian izan ditut bidelagun Bibliako Jainkoaren Hitza bera, batetik, eta kristau-bizitzan zehar liturgiako era guztitako ospakizunetan entzun, irakurri, iragarri, adierazi, azaldu eta neure egiten ahalegindu naizen Jaunaren Hitz haragitua eta eguneratua, bestetik.

Abade egin nintzenetik (Bilbao, 1968-09-15ean), aparteko eran sartua bizi izan naiz eremu horretako itzulpen munduan. Eta batzuetan gehiago bestetan gutxitxoago ekinez, ez naiz sekula urrundu gure euskal elizbarrutietako zeregin eta eginkizun garrantzitsu, maite eta delikatu horretatik.

Diodanaren agerpen eta erakusgarri dira, jakina, bai bakarrean bai eta taldean ere, elizbarruti arteko itzultzaileekin batera, burutu eta argitaratu ditugun Biblia, Liturgiako Meza Liburuak, Sakramentueterako Ospakizun Liburuak, Katekesiko liburuak eta lagungarriak, Pastoralzarako baliabideak eta gainontzeko lagungarriak.

Euskal Herrian, Bilboko gure elizbarrutian eta euskal elizbarruti arteko itzultzaileen taldean izan da nire jarduna, eta inguru horrek mugatuko du nire gogoeten eremua.

Beste arrazoi batek ere bultzatzen nau arlo honen erronka neure gain hartzera. Berezia eta apartekoa da itzulpenaren mundua. Ez da gehiengo handiarentzakoa, gutxiengo batentzakoa baino. Izan ere, irakaskuntza eta ikasketa munduari begira jartzen bagara, hutsune nabarmena barrundatuko dugu. Nik dakidanetik, begibistakoa da hutsunea: gure unibertsitateetan eta teologi ikasketa zentroetan ez dago ikasketa-proiektuen barruan Biblia-itzulpenaren gaineko aztergairik ez ikaskizunik. Gehiago oraindik: Biblia-itzulpenaren teoria eta praktikaren inguruko mintegirik ere ez da eskaintzen gure arteko ikastetxeetan. Tamalgarria da zulo hori. Izan ere, ukaezina eta zerikusi handikoa da gaiaren garrantzia eta horren eragin praktikoa.

1. Elizen arteko Biblian eta liturgiako itzulpen berrian lankide izan dudán Ramón Irizarri zor diot artikulu honetan agertzen den gehiena. Nik berak Gasteizen, Teologiako Fakultatean esandakoak neuretu, euskaratu eta zezortxo osatu egin ditut. Beraganako esker onez eta beraren omenez egin dut gogoeta hau.

1.1. Aurrekariak

Aspaldikotasun ohoragarriak —Bibliaren testua behin betikoa izatera heldu aurretikoa—, etengabeko tradizioak eta gaurkotasun biziak adierazten dute Biblia-itzulpenaren zeregin larriaren garrantzia.

Biblia da, eta era parekaezinean gainera, gizateriaren kultur historian gehien itzuli den liburua.

Itzulpen-interpretazio jardueraren lehenengo testigantza, ahozkoa, ez idatzia, Neh 8an aurkitzen dugu. Bertan agertzen denez, Esdras-ek Torah-ren irakurketa publikoa egin zuen. Eta Esdras-en laguntzaileek, levitarrek, Legearen azalpena egiten zioten herriari. «Zehatz eta garbi irakurtzen zuten Jainkoaren Legearen liburua, esanahia azalduz herriak ulertzeko eran» (Neh 8,7-8). Ikaragarria da irakurketa horren eragina: negar eta jai egiten du herriak «ulertu egin zituztelako entzundako berbak» (Neh 8,12). Eta hori jaiak (Txabolen jaiak) irauten duen zazpi egunetan zehar, zortzigarrenean batzar nagusiarekin amaituz. *Azalpena* hitzak, hemen, hebreeratik aramaierara itzultzea adierazten du seguruenik.

Biblia-itzulpenaren tailerrak (askotan, itzulpena talde-lanean eginez) beti iraun du bizirik eta jardunean, harako LXX Septuaginta edo Hirurogeita Hamarrak deitua den grekorako itzulpena egin zenetik gaur arte. Mundu mailan, igaro den gizaldiaren erditik hona berariaz, Bibliaren itzulpen-arloak hazkunde harrigarria jasan du.

Gaur egun baditugu Bibliaren itzulpen osoak edo zatikakoak 2.300 hizkuntzatan edo dialektotan, Bibli Elkarte Batuak elkartearen informazioaren arabera. Hizkuntza eta dialekto horietako batzuek Bibliaren itzulpenaren bitartez lortu dute ahozko fasetik idatzizkora pasatzea. Itzulpenen hazkunde horren oinarria Bibli Elkarte Batuen lan nekagaitzean datza; izan ere, eurek sustatzen dituzte era guztitara itzulpenak eta gogotsu dihardute Biblia mundu osoan zehar zabaltzen.

Bibliaren itzultzailea, beraz, itzulpen-tradizio zabal eta etengabearen olatuan aurkitzen da. Katolikoon artean, liturgia munduan berariaz, Vulgataren eragin nagusiaren menpe bizi izan gara. Gaur ere, Neo-Vulgata dugu erreferentzia ofiziala Bibliaren liturgiarako itzulpen guztietarako, eta ez jatorrizko hebreera eta grekoa. Ikus *Scripturarum Thesaurus* konstituzio apostolikoa (Erroma, 1979): «[...] Haec Nova Vulgata editio etiam huiusmodi esse poterit, ut ad eam versiones vulgares referuntur, quae usui liturgico et pastorali destinantur». Arau edo norabide horrek hainbat oztopo eta eragozpen sortuko digu, larritasun estuak leporatzeraino itzulpen orokorren eta liturgiarako bertsio ofizialaren artean.

1.2. Gaiaren eragin praktikoa, eta Bibliaren itzulpenaren eta liturgiaren itzulpenaren arteko aldeak

Aipaturiko garrantziaz gain, gai honek badu «eragin praktikoa» ere. Biblia jatorrizko testuetan irakurri ezin dutenentzat egiten dira itzulpenak, jakina. Bibliaren erabiltzaileen ikaragarritzko gehiengoarentzat ez dago Bibliarik itzulpenean izan ezik. Itzulpena, beraz, ezinbesteko ordezkoa da, horren adierarik gogorrean. Izan

ere, gehitxoago edo gutxitxoago, denok gaude itzulpen-beharrean eta itzulpenaren menpe.

Egia esan, ez dira asko Bibliaren itzulpen-tailerrean diharduten beharginak, asko ez direnez hizkuntz eremu zehatz baten mugetan lantzen diren itzulpen-proiektuak. Halandaze, persona gutxiri eragiten die zuzen-zuzenean gaiak, beste arrazoi batzuen artean gaitasun linguistikoa, hizkuntza-gaitasuna eskatzen duelako.

Eta beste arlo askotan legez, hemen ere produktuaren kalitatea da interesatzen zaiguna. Badugu aukeran itzulpen kopuru estimagarria, eta gu gehienbat azken produktuaz baliatzen gara, jatorrizko testutik, arau-testu kanoniko aldagaitzetik, gure hizkuntzetara egin duen bideaz arduratu barik. Bide hori, ostera, eragozpen, oztopo eta tranpaz josia dago, eta esan genezake ez dagoela inon eta inoiz itzulpen perfektu eta behin betikorik.

Itzulpen bakoitzak bere ezaugarri eta berezitasunak ditu, eta horrek itzulpen batzuk beste batzuekin alderatzera eta aurrez aurre jartzera eraman behar gaitu, itzulpen bakarrera fin-finean eta itsu-itsuan burua makurtu barik. Hori egitea ez da egongo, beharbada, guztien ahalbidean. Hala ere, ezinbesteko betebeharra litzateke beti maila akademikoan.

Itzulpenarekiko menpekotasuna sakonagoa eta erro-errotikoa da liturgiarako itzulpenera jaisten bagara. Bibliaren itzulpen orokorrak ugariak eta askotarikoak dira, bai kopuruz bai eta kalitatez ere. Bibliaren liturgiarako itzulpena, ostera, ez da aukerakoa edo hautazkoa, nahitaezkoa eta ezinbestekoa baino. Hemen eskaintza ez da plurala edo askotarikoa, bakarra eta derrigorrezkoa baino.

Eta, zelan edo halan, guztiongan dauka eragina, pastoraltza ekintzaileengan, katekistengan, liturgiako arduradunengan edo liturgia-ospakizunetako partaideengan. Liturgia-arloan denok gara derrigorrezko bezero, bakarra delako liturgiarako itzulpena eta horretan ez dago ezelako aukerabiderik.

1.3. Gaztelaniazko itzulpenei begirada

Gaztelaniaz Bibliaren itzulpenen bilduma eta sorta zabala eta orekatua dugu, eta kalitate onekoa. Hori da gure lehenengo begiradak agertzen diguna. Eta itzulpenok, gainera, itzulpen mota desberdinez osatutakoak ditugu.

Adibiderako, lau itzulpen har genitzake erreferentziatzat, gure artean zabalduenetarikoak:

Biblia del Peregrino (Madril, 1993). BP deituko diogu aurrerantzean

Biblia de Jerusalén (Bilbo, 1967). BJ deituko diogu.

La Biblia. La Casa de la Biblia (Madril, 1992). CB deituko diogu.

Sagrada Biblia (Madril, 2010). Espainiako Gotzainen Batzarrarena. GB deituko diogu.

Biblia-itzulpenak irizpide eta joera desberdinak tarteko direla egin izan dira. Hortik eratorren dira hainbat apartekotasun eta berezitasun, itzultzaile bakoitzaren aukeren arabera. Badira autoreak, sailkapen moduko zerrendak egin dituztenak. Carlo Buzzettik (Buzzetti, 1976), adibidez, Elizen arteko Biblia euskaratu genuenean gure asesore izanak, lau taldetan sailkatzen ditu erlijioaren arloko itzulpenak: *literalak*, *literarioak*, *liturgikoak* eta *kateketikoak*. Azken horri itzulpen *pastorala* elkartu eta gehitu dakioke, beharbada.

Lau itzulpen mota horiek nahiko gertu egon litezke aipatu berri ditugun Bibliaren itzulpenekin, liturgiakoa aparte geratzen dela:

BJ: literala.

BP: literarioa².

CB: kateketiko-pastorala dela esan genezake³.

GB: literalean sartu beharko genuke.

Itzulpen-joera hain zabaletan sailkatzea sinplista samarra dela aitortzen dugu; hala ere, norabidea nahiko ondo agertzen digu, autoreek adierazten duten asmoa eta guraria aintzat hartzen badugu.

Bai, baina..., eta *liturgiarako* itzulpena, zer?

Biblia-itzulpen berriak erregulartasunez bideratzen eta merkaturatzen diren artean, itzulpen liturgikoen aldatu gabe irauten dute hamarkadetan. Horrek erabileraren eta errutinaren ahuldura eta makaltasunera garamatza, eta utzikeriaren eta ahazmenaren gurpilean jausten gara.

Itzulpenek, berriek edo eraberrituek, asmo edo helburu bikoitza izan ohi dute: hizkuntza aldetiko eta literatura aldetiko hobekuntzak sartu eta Bibliaren ikerketan lortu izan diren fruituak gehitu eta txertatzea (itzulpenari berari dagokionean, eta gainontzeko osagaietan, sarreretan, oharretan, etab.). Liturgiarako itzulpenaren biziraupena hain luzea izateak, ostera, gero eta desgaste larriagoa eragiten du.

Itzulpen liturgikoak beste itzulpen guztiak adinako arreta merezi du, gutxienez. Izan ere, kristau-herriaren gehiengoak zelaz hurreratzen da Jainkoaren Hitzera? Funtsean, eta batez ere, liturgian eskaintzen zaion Bibliako testuaren bitartez. Halandaze, arduraz eta zehatz landu beharko genuke liturgiarako itzulpena, askok eta askok hortxe bakarrik dutelako Jainkoaren Barbaren janaria.

1.4. Euskarazko itzulpenei begira

Mundutxo honetan dabilzantzat ezagunak ziren Olabideren, Duvoisinien eta Kerexetaren itzulpenak:

2. «Creo que la Biblia del Peregrino mejora la aportación literaria» (Alonso, 1993: 12).

3. «Convencidos de que el conocimiento de la palabra de Dios es el mejor camino para la evangelización, ofrecemos el texto sagrado, acompañado de notas e introducciones, a los sacerdotes, a los catequistas y a todo el pueblo cristiano, sin olvidar a todos aquellos que desde otros credos y convicciones desean conocer el mensaje del Libro de los libros» (AA.VV., 1992: VIII).

Olabide: Olabideren Biblia deituko diogu (OB): Bilbo, 1958.

Duvoisin: Duvoisinen Biblia deituko diogu (DB): Bilbo, 1972 (= Londres, 1859-1965).

Kerexeta: Kerexetaren Biblia deituko diogu (KB). Bilbo, 1976.

Oraintsuago, beste batek irabazi du irakurleen gehiengo, Elizen arteko Bibliak:

Elizen Artekoa: Elizen arteko Biblia deituko diogu (EAB). Donostia, 1994.

1994. urtean argitaratu zen *Elizen arteko Bibliak* (EAB) iraultza moduko gertakizun garrantzi handikoa ekarri zuen euskaldunon artera. Izan ere, jatorrizko hizkuntzetatik euskara batura egin den Biblia osoaren lehenengo itzulpen modernoa da. Bibli Elkarte Batuak elkartearen eta Euskal Herriko Elizbarrutietako biblista eta euskal itzultzaile talde baten artean, elkarlanean egin eta prestatu da. Askoren ustez, gure EAB hau, gaztelaniaz egin izan diren itzulpen onenen parean jar genezake, ezelako zalantza barik.

Eta, euskaraz..., liturgiako itzulpena? Aurretiaz euskaraz genituen liburu liturgikoen berrikusketa bideratu zen 1999. urtean. Berrito aztertu behar ziren Meza Liburua eta Sakramentuen Ospakizunetarako liburuak. Arduraz eta zehatz egin beharreko lana izan da, domeketako eta astegunetako irakurgai-liburuak eta salmotegia berraztertuz. Gaztelaniaz ere, Espainiako Gotzainen Batzarrak eskatuta, Bibliaren itzulpen berria egin da (*Sagrada Biblia*, Madril 2010) eta eurek adierazi dutenetik, horixe izango da liturgian erabili beharko den testua.⁴

Liturgiako itzulpena eguneratzeko lana, lankidetzan osatu dugu Liturgiako Komisioaren (Donostiako Ordezkaritza, batez ere) eta EAB egin genuen taldeko batzuen artean. Azken fruitua, liturgiako ohiko testua eta EABkoa bateratzea eta zorionez elkar hartzea izan da, nahiz eta emaitza horretaz geroago eta astiroago hitz egin ahal izango dugun.

2. Biblia-itzulpenak erkatzen

Bibliaren itzulpena, edozein Biblia-itzulpen, eragozpen eta oztopoz beteriko zeregina da. Azken itzulpena eskuetan izateak oztopoak estaltzera edo zatika eta era urrian eta mugatuan azaltzera eramango gaitu, beharbada. Itzultzaileak, ostera, txitean-pitean aurkitzen ditu eta, asmatu izanaren segurtasunik eduki ez arren, irtenbide eta soluzioa ematera behartua aurkitzen da. Oinarrizko, jatorrizko hizkuntzan zehatz ulertu behar dira terminoak, esapideak eta esamoldeak, xede edo jomugako hizkuntzan era argian eta ulergarrian eta sarkorren emateko.

Bibliaren irakurleari ezin diogu eskatu exegeta edo teologoa izatea. Itzultzaileok arduratu behar dugu hitzen eta jatorrizko irudi literarioen ordezko zuzen eta egokiak ahalik zehatzen ematen. Biblisten eta itzultzaileen baterako lankidetzak erraztu eta aberastu egiten du azken itzulpena.

4. «*La Sagrada Biblia. Versión oficial de la Conferencia Episcopal Española* es la única traducción que se podrá utilizar en la Liturgia formando parte de los leccionarios, una vez que la Santa Sede conceda la preceptiva aprobación de los libros litúrgicos correspondientes» (Conferencia Episcopal Española, 2010: XVIII).

Dena dela, kontuan izan behar dugu, bai berbaz berbako itzulpenean baita esapide eta irudien itzulpenetan ere, badirela joera desberdinak, bateriko edo besteriko itzulpena baldintzatzen edo bultzatzen dutenak.

2.1. Adibide argigarri batzuk

Gure itzulpenean (EAB) *justizia* ordez *salbamen-indarra* (Erm 3,21), *justifikatu* / *justifikazio* ordez *Jainkoak onartu* (Erm 3,24.28), *tradere/traditio* ordez *eskualdatu* (1Ko 15,3), *grazia* ordez *onginahia* (1Ko 1,4)... eta beste asko ikusteko aukera izango duzu.

Esaten dihardudanaren argigarri modura hiru adibidetara joko dugu eta itzulpen desberdinak eskainiko zaizkigu, iritzi eta joera diferenteen eragina tarteko izanik.

2.1.1. Zelan itzuli JHVH Sebaot sintagma?

BJ: *Jahvé Sebaot*, hebreerazko berbera.

BP: *Señor de los ejércitos*. Vulgataren aukera onartu du. Nahiko iluna dela esan genezake. Zer armada? Zer gudaroste? Eta, gaurko irakurleari zer esango dio titulu hori JHVHri aplikatzeak?

CB: *Señor Todopoderoso*. Pantocrator. Gaurko irakurlearentzat ulergarriagoa, LXX, *Septuaginta* edo Hirurogeita Hamarrak deituriko IZren grekozko itzulpenetik jasoa.

EAB: *Jaun Ahalguztiduna*.

2.1.2. Dikaiosyne hitza zelan itzuli Mateoren ebanjelioan?

Mateorengan hitzak dituen 7 adieretan, badirudi esanahia zera dela, gutxi gorabehera: 'Jainkoaren borondateagazko adostasuna'. Argitze aldera, nahikoa da elkarrekin lotura duten testu bi aipatzea; Joan Bateatzailearekin dute zerikusia biek: Mt 3,15 eta Mt 21,32. «*Dikaiosyne*: justizia», ohiko baliokidetasuna hartzen bada, testu bien itzulpena hurrengo hau litzateke gaztelaniaz: «Es conveniente que cumplamos toda justicia» eta «Vino Juan a vosotros en camino de justicia».

BJren hautua hau da: Mt 3,15: «toda justicia». Mt 21,32: «vino Juan a vosotros por camino de justicia». Itzulpen literalak arazo larriak sortzen ditu eta esapidearen esanguraz ez aurrera eta ez atzera jartzen du irakurlea. Hori bai, oharra dator laguntza eskainiz: «Esapide biblikoa, biblia-adierazpidea. Joanez irakatsi eta gauzatu egiten zuen gizakia "justo egiten duen" Jainkoaren borondateagazko adostasuna».

BPren hautua beste hau da: Mt 3,15: «cumplir toda justicia» hebreera sundakoaren ordez, gaztelaniaren eskakizunekin lotuagoa legokeen «realizar la justicia plena» jartzen du.

Mt 21,32: eraldaketa sakonagoa eskaintzen digu: «vino Juan, enseñando el camino de la honradez». Arrazoibakoa da *dikaiosyne* itzultzeko hitz desberdina erabiltzea eta koherentzia falta erakusten du.

Alonsoren itzulpena (BP) baliokidetasun formala deitzen dugunaren bidetik doa gehienbat. Irakurleak ulertzen ditu berbak, baina noraezean geratzen da esanahiari dagokionez.

CBren hautuak, berriz, beste hauek dira: Mt 3,15: «conviene que cumplamos todo lo que Dios ha dispuesto». Eta Mt 21,32: «vino Juan a mostrar el camino de la salvación». Ezbaian eta zalantzan jar genezake, beharbada, itzulpenaren barrukoherentzian edo baliokidetasunean asmatu izana, baina esanahiaren aurrean ipintzen du irakurlea, zuzen-zuzenean. Horrela, baliokidetasun funtzionalean edo semantikoaren bidean, ereduari, sartzen da erabat CB.

Azkenik, hona hemen EABren bidea. Mt 3,15: «honela bete behar dugu osoki Jainkoaren nahia» (eta oharrean ematen du berbaz berbako itzulpena). Eta Mt 21,32: «etorri zitzaizuen Joan Bataiatzailea Jainkoaren nahiari dagokion jokabidea azalduz» (eta oharrean jarri da itzulpen literala). Eta kontuan izan esplizitazioa ere egiten duela EABk, «Bataiatzailea» dela esanez hemengo Joan. EABk, bada, koherentzia osoa jagoten du hitzetan eta baliokidetasun dinamiko-funtzionalaren aukera garbia egiten du.

2.1.3. *Erm 12,20 Es 25,21-22 aipatur (irudimen-hizketan)*

BJk itzulpen literala egiten du: «si tu enemigo tiene hambre, dale de comer; y si tiene sed, dale de beber; haciéndolo así, amontonarás ascuas sobre su cabeza». Eta, ohi duenez, oharrean adierazten du zentzuna eta esanahia: «Los carbones ardientes, símbolo de un dolor punzante, designan los remordimientos que llevarán al pecador al arrepentimiento» (testuak hala ere ez dio ezer «pekatari»aren gainean eta ez dago batere argi ea damuaz hitz egiten duen).

Beste hiru itzulpenek antzeko interpretazioa emanez itzultzen dute irudia:

BP: «así le sacarás los colores a la cara» (eta oharrean bertsio literala).

CB: «actuando así, harás que enrojezca de vergüenza» (eta oharrik egiten ez duenez, azalpenak baino, ez zaigu ezer esaten jatorrizko irudiaz).

EAB: bide berari jarraitzen dio = «horrela lotsa gorritan utziko duzu» (oharrean itzulpen literala emanez eta Es 25,22ra bidaliaz, han agertzen den irudiaren interpretazioa ere ez dela ziurra kontuan izanez).

Hori bai, aitortu behar da Alonsok benetan asmatu duela, irudi-baliokidetzan: «ascuas sobre la cabeza / colores a la cara». Kasu honetan ez da mira egitekoa itzulpen literala BJK bakarrik egitea, irudia gaurko irakurlearentzat hain arrotza eta ulergaitza izatean.

Adibide hutsak agertu ditugu hemen, baina nahiko argigarriak dira, zabalago eta beste itzulpen askorekin ere probatu litezkeenak. Dena dela, jakin dezagun, eta aintzat hartu, irtenbide desberdinak itzulpen batek edo besteak aurretiaz hartu dituen oinarritzko aukera eta norabideen ondorio direla. Hala ere, gogoan izan behar da baliokidetasun-eredu desberdinen erabilera praktikoa aldagarria dela.

2.2. Biblia-itzulpenaren oinarritzko ereduak

Itzulpena da lehenengo bitartekotza Bibliako testua jasotzaileagana —irakurle edo entzule— hel dadin, eta itzelezko gehiengoarentzat bitartekotza ordezkazina gainera. Itzultzailea bitarteko edo zubi da testu beraren forma diferenteen artean, eta bitarteko baita egoera edo testuinguru komunikatzaile desberdin biren artean ere. Alde biok aintzat hartuz gero, eta irudiaz baliatuz, tarte edo zati bi ditu itzulpen-ibilbideak: jatorrizko testutik itzulitakora doana bata, eta itzulitakotik irakurleagana doana bestea. Itzulpen batzuek lehenengo tartera mugatzen dute ibilbidea; beste batzuek, ostera, garrantzi berdintsua edo handiagoa ere ematen diote bigarren tarteari, hau da, itzulitako testutik irakurleagana doanari.

Ondotxo jakina da itzulpena zeregin gaitza eta delikatua dela testu literarioari dagokionez. Ez da gauza bera informatikako testu bat eta testu literario bat itzultzea. Eta Biblia, ehuneko handi baten, testu literarioa da. Eta esapide horretan ez da *poesia* bakarrik sartzen, erabat gaitza ondo itzultzen; *narratiba* testuak ere hartzen ditu literario hitzak.

Aurrean dugu, adibidez, testu literarioa: zelan jokatu dugu? Berez sortzen zaigu itauna: zer dio testuak? Beste itaun bat da, ostera, lehentasuna behar lukeena: zelan dio? Izan ere, dioena dioela edo egiten duena egiten duela, hizkuntzaren bidez du esaten eta egiten. Eta, jakina, hizkuntza bakoitzak, edozeinek, bere-bere baliabide linguistiko eta literarioak ditu, eta bitarteko moltso horrekin jokatzen du.

Itzulpena ez da egiten hiztegiarekin eta gramatikarekin huts-hutsean, honako hizkuntza baten osagaiak beste batera erdi mekanikoki pasatuko bagenu legez, honako ura (edukia) beste ontzi batera (hizkuntzetara) lekualdatuko bagenu legez. Jatorrizko testuaren kopiagintza hutsa baino gehiago birsorkuntza-lana egin behar da. Jatorrizko testuak eta testu berriak, biek daukate euren izaera berezia, modu linguistiko-literario berezian eta propioan josia eta iraulia. Testu berriak jatorrizko testuaren benetako ordea izan gura du erabat.

Jar gaitzen, ostera, hizkuntzaren teoria komunikatiboaren ikuspegian eta perspektiban. Mundu berri bat agertzen zaigu hemen eta itzulpenaren jarduna sano ere sano aldatzen zaigu.

Biblia-testua gertaera komunikatiboa da; igorle batek mezu bat komunikatzen dio bertan jasotzaile edo hartzaile bati. Eta itzultzaileak zera bilatzen du: jatorrizko gertaera komunikatiboa berritzea, mezu berbera komunikatuz hizkuntza berri batean jasotzaile berriei, kultura-testuinguru erabat desberdinean aurkitzen diren hartzaile berriei. Ez da, beraz, hizkuntza batetik beste batera *zeozer (testua)* lekualdatze eta pasatze hutsa. Hemen *nonori* komunikatu behar zaio mezua. *Norbait* horretan jarri behar dugu azpimarra, aurrean aipaturiko *zerbait* hartan baino gehiago. Defizitariora litzateke komunikazioa jatorrizko mezua gaurko jasotzaileengana era ulergarri eta esanguratsuenean helaraziko ez balu. Edozein forma, hobeto esanda, forma linguistiko zehatzak, mezuaren zerbitzura daude. Eta formaren imitazioak mezuaren komunikazioa galarazten edo oztopatzen badu, ezinbesteko izango da jatorrizkoaren formulazioa berrantolatu eta berregitea. Horregatik, arrazoi osoz esaten dugu itzulpena birkreazioa dela.

Ikuspegi horretatik erabakigarria zera da: batetik jasotzailea den hizkuntza eta bestetik benetako hartzaileak, euren kultura- eta hizkuntza-baldintzekin. Zenbat eta handiagoa izan hizkuntza-sistema biren edo kultura-mundu biren arteko distantzia eta desberdintasuna, hainbat handiagoa eta premiazkoagoa izango da baliokidetasun dinamiko-funtzionala ezartze eta erabiltzearen beharra.

Bibli Elkarte Batuek gogoeta sakona garatu dute itzulpen-munduko teoriaren eta praktikaren inguruan. Izan ere, Bibliaren itzulpenetarako eta zabalkunderako burutzen duten ekimen eta jardueran, ezinbesteko egiten zaie printzipioak, irizpideak, itzulpen-prozedurak eta teknikak zehatz eta sakon lantzea. Eta horretaz guztiaz baliaitu izan da ugari gure EAB. Pribilegiatuak ere izan garela esan genezake, Biblia-itzulpenaz liburu argiak idatzi dituen Carlo Buzzetti italiarra (goian bego), urteetan eta unibertsitateetan (Erromako Gregorianoan eta Salesianoan) arlo honetan irakaslea, gurekin izan dugulako EABren itzulpenaren ibilbide osoan, Bibli Elkarte Batuen (BEB) ordezkari eta aholkulari.

Oinarrizko *eredu bi* nagusitu dira Biblia-itzulpen munduan: baliokidetasun *formala* (BF) eta baliokidetasun *dinamiko edo funtzionala* (BD).

Baliokidetasun *formalak* jatorrizko forma ahalik eta artezen berresatera eta erreproduzitzera jotzen du, nahiz eta ondotxo dakigun ilusio eta amets hutsa dela itzulpenak jatorrizkoa mimetikoki erreproduzitu ahal duela pentsatzea. Eta gainera hebreerari lotuegiak diren itzulpenak ilun eta jasangaitzak izan ohi dira.

Baliokidetasun *dinamiko-funtzionalak*, semantikoa ere deitua izan denak, askatasun handiagok jotzen du jatorrizko hitzen formulazioari dagokionez. Hemen lehentasuna ez dauka «hitza hitzaren truk» legeak. Esanahia, signifikatua, adiera da ardura nagusia, eta esanahia eta mezua da bidali eta transmititu gura duena, irakurleak benetan ulertu ahal izan dezan.

Fideltasuna, zehaztasuna da, bai, itzulpenaren lehenengo legea. Fideltasunak, baina, aurpegi bi ditu: bata jatorrizko testuari begira dago, eta bestea jasotzaileari begira. Baliokidetasun formaleko (BF) itzulpena jatorrizkoari begira dago, ahalik eta doitasun handienaz erreproduzitzeko, nahiz eta horrek irakurleari kaltea ekarri testua ulertzerakoan. Baliokidetasun dinamiko (BD) irakurleari begira jartzen da, mezuari berari eta mezu hori irakurleak bereganatzeari lehentasuna emanez.

Argi eta garbiak dira aukera bataren eta bestearen arriskuak: lehenengoa imitatzailea da eta ez du behar lukeen beste itzultzen (goian aipatu dugun itzulpenaren «lehenengo zatian» geratzen da, nahiko bermatu gabe irakurleak esanahia ulertzerik). Eta bigarrena, eraldatzailea izanik, gehiegi aldatzearen arriskuan jausi liteke. Arrisku biok ekiditea izango da itzultzaile onaren asmoa eta bide zuzena.

2.3. Biblia itzultzean baliokidetasun dinamiko edo dela erabili ohi diren itzulpen-prozedura batzuk

2.3.1. Esplizitazioa

Esplizitazioa da txitean-pitean eta etengabe erabili ohi den itzulpen-prozeduretako bat. Jatorrizko egoera komunikatiboan kultura-testuinguru berbera partekatzen

dute igorleak eta hartzaileak. Halandaze, informazio askok ez dute esplizitazioaren premiarik; zenbat eta handiagoa izan bidaltzailearen eta jasotzailearen kidetasuna/konplizitatea, hainbat zabalagoa da implizituaren eta gainulertuaren eremua.

Gaurko irakurlearen testuarekiko hartu-emanak, osterak, ez da konparagarria, ezta jatorrizko egoerarekin alderagarria ere. Han kidetasuna eta konplizitatea zena, arrotza eta ezezaguna da hemen. Eta alde eta desberdintasun horrek ezinbesteko egiten du implizitua esplizitu egitearen itzulpen-prozedura.

Ez da bidezko testuan ez dauden informazioak sartzea. Bidezko eta beharrezko ere bada, osterak, testuan implizitu geratu den informazioa esplizitatzea, gaurko irakurleak eragozpenik baldin badu testuak dioena ondo jasotzeko. Adibidez, Joanen lehenengo gutuneko hainbat pasarte anaforikoak dira, ez dute subjektua esplizituki jartzen. Eta irakurketan aurrera egin ahala, desitxuratu eta galdu egiten da erreferentearen arrastoa eta sidurria. Eta hura berriro eskuratu behar da, testua argi ulertu gura bada.

Testua oraindino ilunagoa gertatzen da liturgian, zatikatua aurkitzen dugunean. Urtarrilaren 3ko lehenengo irakurgaia honela hasten da: «Senide maiteok: Hark Jainkoaren nahia egiten duela badakizue, jakizue era berean Jainkoaren nahia egiten duen edonor (guztia) harengandik jaioa dela». Joanen gutunean badugu, gainera, beste traba bat ere, nahikoa larria; erreferentea zein den jakitea, Jainkoa ala Jesu Kristo, ez dela batere erraza. Eta itzulpenak, ezinbestean aukera egin beharra dauka. Eta aukera egiteak interpretazioa eskatzen du, hau da, exegesira jotzea (nahiz eta exegetak eurak ere bat ez datozen beti).

Dena dela, «interpretaziozko itzulpena» espresioa nahiko susmagarria eta desagokia egiten zaigu. Garbia eta begi-bistakoa da, osterak, ez dagoela itzulpenik interpretazio bakorik. Kasu eredugarria da «pasibo teologikoarena», Jainkoa izendatzen ez denekoa. Ezagutzen ditugun itzulpenak aurrean izanik, zein itzulpen da «fidelagoa», literala (hitza hitzaren truk) ala subjektua esplizitatuz «Jainkoa» hitza jartzen duena. Akabubakoak izan litezke honelako adibideak...

2.3.2. Testuaren esanahia argitu

Testuaren esanahia argitzea gura du BDak, ulergarritasuna jokoan dagoenean. Itzulpen-prozedura hau, argitzea hain zuzen, ikusi berri dugun esplizitazioarekin lotua dago. Biblia-itzulpenaren arazoa ez da bakarrik linguistikoa, kulturala ere bada.

Hona hemen adibide bat. Kreazioaren lehenengo kontakizunean, sei egunetan osatzen denekoan, errepikatzen den formula berarekin amaitzen da egun bakoitzari dagokion egintza kreaizalea.

Gaztelaniaz itzulpen erabat literala eginez Hasiera 1,5ean dio: «Y fue tarde y fue mañana, día uno». Beste horrenbeste bigarren egunean, hirugarrenean... Eta Jerusalemgo Bibliak (BJ): «Y atardeció y amaneció: día primero». BPra joz gero: «Pasó una tarde, pasó una mañana: el día primero». Eta Casa de la Bibliak (CB) ere BPren testu berbera jasotzen du. Esapide hori, entzun ahala, ezaguna eta ulergarria zen atoan K.a. V. gizaldiko judeguzentzat. Kultura-datua dago esamolde

horren atzean: hebrear batentzat eguna arrastian, arrats beheran hasten da, eta arrastia-goiza binomioak egun osoa esan gura du, hasierarik amaierara. Esapideak, bada, lehenengo eguna osorik adierazi gura du. Hala ere, «hitzez hitzeko itzulpena» gaurko irakurlearentzat nahaste-borraste bat bihurtzen dela deritzot. EABn hara gure itzulpena: «Honela, lehen eguna burutu zen», hitzez hitzeko itzulpena oharrerako utziz.

Beste adibide bat, Mt 18,23-35ean daukaguna: barkamena eman zaion arren, berak lagunari barkatzen jakin ez duen morroiaren parabola. Eta kontrastea ikaragarria da gainera hemen. *Hamar mila talentu* zor zizkion morroiak erregeari, eta horrek dena barkatu dio; eta *ehun denario*ren zorra zuen lagunak morroiarekin, eta horrek ez du izan errukirik eta ez dio barkatu. BJK eta CBk bertsio literala mantentzen dute, baliokidetzak oharrean azalduz (lehenengo zifraren demasa azpimarratuz). BPK, hara ezustekoa, «hamar mila miloi» itzultzen du lehenengo zifra, eta bigarrean «ehun denario» jartzen du, ezelako aldaketarik barik.

Gaurko irakurlearentzat aurreikusteko modukoa ez denez talentuen eta denarioen arteko diferentziari erreparatzea, baliokidetasun funtzionalera jo du gure EABk kasu bietan, kantitateak espezifikatu barik: «milioi asko» lehenengorako, «diru pixka bat» bigarrenerako. Ehun denario, berez, kantitate estimagarria da; kontakizunean, oster, kantitate txatxarra, ezerezkeria hutsa da erregearekiko zorraren kopuru ikaragarriarekin konparatuz gero.

Testua irakurle arruntarentzat, ez bakarrik Biblian adituarentzat, esanguratsua izan dadin, ezinbestekoa da esanahia argitzeko ahalegin handia egitea. Horregatik esan dut gorago itzulpen literalak gutxi itzultzen duela, edo ez duela benetan itzultzen. Hitz batzuk jartzen ditu, bai, beste batzuen ordez, baina testua ez du ulergarri egiten irakurlearentzat.

Itzulpen funtzionalean apartekoa da itzulpenaren premia eta goragokoa baita eskatzen den interpretazioaren maila ere. Baliokidetasun dinamikoaren taxuko itzulpenak jatorrizko testuaren analisi eta azterketa sakonagora behartzen gaitu, anbiguitasunak (gurata eginak batzuetan) argituz, adibidez. Eta sormen- eta kreatibitate-ahalegin handiagora bultzatu eta behartzen gaitu, oinordetzan hartuta dauzkagun ohiko formulak gainditzeko. Gure artean liturgiarako egin izan den (zen) itzulpenak ezinbestean bereganatu du akatsa, edo muga behintzat. Izan ere, abadeak ziren itzultzaile guztiak eta buruz zekiten latinezko testua; halandaze, Vulgatako formulak sakon barruratuak eta eurenaganatuak zituzten. Egoera horretan, ez da batere erraza irakurle edo entzule arruntaren lekuan nork bere burua jartzea, harentzako ulergarriak diren esapideak aukeratuz eta erabiliz.

2.4. Biblia-itzulpenean txertatutako oharrez

Gorago esan dut ikasleak edo ikertzaileak itzulpen desberdinak alderatu beharko litzukeela. Irakurle arrunta, oster, ez dago ezelan ere jarduera horietan sartzeko, eta ez da arduratzen itzulpen-arazoez. Sarritan ez da konturatu ere egiten eskuetan daukan Biblia itzulpena denik. Dena dela, bidezko da itzultzaileei era guztiako informazioa eta argibideak eskatzea: ea zein eratako itzulpena egin gura izan duten,

zein irizpiderekin jokatu duten, zein helburu lortu gura izan duten eta itzulpena norentzat egin duten (ez delako gauza bera ikaskuntzarako eta liturgiarako gauzatu eta moldatu den itzulpena, adibidez). Zehatz argitu beharko lukete jatorrizko testuaren, testu berriaren (itzuliaren) eta irakurlearen arteko hartu-eman. Eta «itzulpen-oharrak» hartu-eman oso esanguratsua da itzulpen mota desberdinen aukerak argitzeko.

Alonsok, adibidez, Nueva Biblia Españolaren (NBE) literatura-ekarpena azpimarratu du, BPK hobetua, bere ustez. Begira zer dioskun: «Itzulpen batean, literatura-testuetan berariaz, garrantzitsuena itzulpena bera dela deritzot (beste batzuen ustez oharrak dira garrantzitsuenak). Itzultzean jatorrizkoaren komunikazio osoa berregitea gura dugu. Orduan, ez bakarrik adimen edo doktrina aldetikoa, baita emozio, eragin, iradokizunezkoa... ere» (Alonso, 1993: 12)⁵.

Arrazoa dauka Alonsok itzulpenaren garrantzia azpimarratzen eta testuaren autonomia berreskatzen duenean. Horixe da, seguruenik, itzultzaile ororen helburu eta jomuga: Biblia-testua biluzik eskaintzea, ezelango euskarririk gabe, irakurlea testuaren aurrez aurre jarritz.

Asmotik errealitatera, baina, bide luzea dago. Behingoan gardena den testuaren gurariak eta «pretensioak» badauka zerikusia beste itaun batekin ere, edozein itzulpenen inguruan sortzen den itaun honekin, adibidez: itzulpenak, itzulpen itxura erakutsi behar du, ala disimulatu eta estali egin behar ote du? Testua eta oharrak kontrajarriz ematen zuen Alonsok bere iritzia. Oharrek, nahiz eta irakurleak irakurri gabe utzi litzakeen, badute balio bat, ordezkazina, eta hurrengo hau da: itzulpeneko testuak jatorrizko testuarekin duen hizkuntza aldetiko eta kultura aldetiko distantzia eta urruntasuna islatzea. Gai diezina da distantzia hori, eta benetako eskakizun dugu hori itzulpenean islatzea, testu eta oharrak osatzen duten itzulpenean agertzea, fideltasun bikoitzaren eskakizun, jatorrizko testuarekiko eta gaurko irakurlearekiko fideltasunaren eskakizun. Hori bai, «testua-oharrak» hartu-eman desberdina izan ohi da itzulpen-eredu bat edo beste aukeratzean.

BPK ez dauka oharrak (erreferentzia-aipamenetatik aparte). Ez da, ezelan ere, bere balioetan aipatzekoa, batez ere ondotox dakigunean itzulpen bidean testuarekiko lizentziak (manipulazioak?) eta justifikazio eskasa duten ustezko itzulpenak gauzatzen direna hainbat bider. Irakurlea, gutxienez, jakinaren gainean ipini beharko luke. Alonsok egindako itzulpenaren merituak, berak azpimarratu eta azaldu duenez, beste arlo eta sail batzuetan daude. Dena dela, BPK baliokidetasun formalaren ereduari jarraitzen dio gehienbat.

CBk ere ez dauka oharrak. Horren ordez, benetako azalpen edo iruzkina aurkitzen dugu orriaren behealdean, eta balio handikoa gehienetan. Hauxe izango da, beharbada, gaztelaniazko itzulpenetan katekesirako eta pastoraltzarako ondoen egokitzen dena, eta baita bakarkako eta taldeko irakurketarako onena ere, azalpenaren laguntza aberatsez. Baliokidetasun dinamikoaren sailean kokatzen da

5. «Al traducir intentamos rehacer la comunicación integral del original. Es decir, no sólo el contenido intelectual o doctrinal, sino también de la emoción, el impacto, la sugerencia... Al traducir textos literarios, no los vertemos genéricamente a la lengua receptora, sino específicamente al nivel del lenguaje y al género literario particular: cantos de amor, refranes, elegía, retórica, relato...» (Alonso, 1993: 12).

CB. Horregatik, ohar zehatzen hutsunea barrundatzen da, testu aldetikoak berariaz; arlo literarioa nahiko argi azaltzen da, gehienetan, azalpenarekin.

BJk ohar ugari dauka. Hori dela-eta, Bibliarik erabiliena da ikasketetan, jatorrizko testuarekin duen hurkotasunagatik, eta hitzen eta formula literarioen itzulpenean agertzen duen koherentziagatik. Baliokidetasun formalaren sailean kokatzen da ausardiaz BJ. Halandaze, «testua-oharrak» hartu-emanak aukera hori egin duenaren bidetik doa: itzulpen literala jartzen da testuan, testuaren iluntasunak argitzeko oharrak erabiliz.

EABk ere ohar ugari dauka (ez edukiaren/doktrinaren aldetik). Buru-belarri egiten du baliokidetasun dinamikoaren aukera itzulpen bidean, erabat BJen kontrakoa: itzulpen esanguratsua, adiera jasotzen duena eskaintzen du testuan, eta oharretarako uzten du itzulpen literala. «Testu-oharrak» ez dira bertsio literala ematera mugatzen. Sarritan, BJren antzera, beste informazio batzuk ematen dira: itzulpena hipotetikoa dela, jatorrizkoa biziak dagoela edo iluna eta zalantzakoa dela; edota, ordezko itzulpenak ematen dituzte, aukeratua izan denaren bestean legezko izan litezkeenak... eta abar. Ez dugu ahaztu behar Biblia-testua, behin baino sarriago, problematikoa egiten zaigula. Bidezkoa ote da itzulpenaren alde hori mozorrotzea edo ezkutatzea?

Itzulpen orokorrak ez bezala, liturgiarako itzulpenak testu hutsera mugatua geratu behar du; ezin du oharretara jo, ez daukalako oharren baliakizunik. Eta geroago ikusiko dugunez, liturgiarako itzulpena testuan bertan ere ezin da bermatu eta babestu. Izan ere, ospakizun liturgikoaren testuinguruan entzuleok ez gara testuaz baliatzen, testua ahozko aldarrikapenean bakarrik heltzen zaigu-eta. Horra hor liturgiarako itzulpenaren baldintza garrantzitsuak eta muga larriak.

2.5. EAB: ulergarritasunaren aldeko apustua

Biblia-itzulpenari buruzko bigarren atal hau amaitzeko, EABren inguruko ohar batzuk eskainiko ditut. Horrela, egoki kokatuta geldituko da hirugarren atala, liturgiarako itzulpena, baita liturgiarako euskal itzulpenaren azken birmoldaketa ere.

EABren itzultzaileen taldeak gogoeta nahiko sakona egin zuen, bere sasoiaren, itzulpenaren problematikaren inguruan eta Biblia-itzulpenaren inguruan berariaz. «Katoliko talde baten eta Bibli Elkarte Batuetako ordezkarien artean erabaki zen 70eko hamarkadan Itun Berria itzultzea, asmoa bideratzerakoan 77ko irailean Arantzazun batzarre zabal bat egin zelarik. Ondoren, lehen argitalpena agorturik, berriro elkartu ziren alderdi biak (katolikoak eta protestanteak) Itun Zaharra euskaratzeko erabakia hartuz eta, lanari ekin ahal izateko zertzeladak zehazterakotan, urte bereko irailean Lazkaon, beneditarrenean, itzulpenari buruzko mintegia egin zelarik. [...] Vatikanokoak eta Bibli Elkarte Batuek horrelako itzulpen-lanetarako egina duten akordioa onartu zen»⁶.

6.. «Vatikanokoak eta Bibli Elkarte Batuek horrelako itzulpen-lanetarako egina duten akordioaren («Bibliaren itzulpengintzan elizen arteko elkarlanerako arauak» izeneko hori 1987an berritu zen) bidetik jotzea erabaki zen eta horretan saiatu dira itzultzaileak» (Bibli Elkarte Batuak & Euskal Herriko Elizbarrutiak, 1994: XI).

Mintegiak, bada, aintzat hartu eta onartu egin zituen Bibli Elkarte Batuen barruan zeuzkaten ebazpideak. Eta Bibli Elkarte Batuak erakundeak eratu zuen, euskal elizbarrutietako ordezkariekin batera, eta neurri handi batean finantzatu ere berak egin zuen asmoa eta proiektua. Malgutasunez erabili ziren, horratio, ebazpideak eta teknikak, BEBek bultzatutako beste itzulpen batzuetan baino erradikaltasun gutxiagoz (gaztelaniazko «Santa Biblia. Dios habla hoy» edo italierazko «Parola del Signore. La Bibbia in lingua corrente» itzulpenetan baino zabalago).

Izan ere, baguenen malgutasunerako eta zuhurtziarako arrazoia: gaztelaniaz irakurleak bazuen itzulpen desberdinak alderatzeko aukera, eta bere beharrian eta interesen arabera bata edo bestea erabiltzeko posibilitatea; euskaraz ez zegoen posibilitate hori. Beraz, uztartu eta konbinatu egin behar ziren irakurlearekiko hurkotasuna alde batetik, —testua bat-batean ulergarria— eta jatorrizko testuaren bestetasun edo alteritatearekiko begirunea bestetik (horra testu motako ohar ugariaren oinarria).

Korrelatiboak dira irakurlearekiko arreta eta testuaren ulergarritasunaren aldeko apustua. Asmo nagusi bat izan du EABk: itzulpen orok jagon behar duen leialtasun bikoitzean, jatorrizko testu(inguru) eta hizkuntzarekikoa baita hartzaile edo jasotzailearekikoa ere; oreka lortzeko, lehenengoak ez dezala zapaldu bigarrena, lehenengoarekiko leialtasunak ez diezaiola kalterik egin bigarrenarekikoari.

Jasotzailea mugatzea faktore oso garrantzitsua da egin gura dugun itzulpen mota ebazterakoan. EABren kasuan ez zen batere erraza irakurlearen profil zehatz bat finkatzea. Biblia, benetan, ez da liburu elitista bat; herriarentzako liburua da, bai bere jatorrian bai eta bere harreraren historian ere. Bibliak, bada, euskal testuinguru eta eremu jakinetik, erabiltzaile askotariko eta askorengana zabaldu behar zuen, hartzaile pribilegiatu modura talde jakin bat adierazi eta zehaztu gabe.

Aurkezpeneko orrialdean agertu genuen, zehatz-zehatz ez bazen ere, gure asmoa: «Asmoa ez da izan Biblia euskal elite batentzat ematea. Xedea, Biblia euskara-maila nahiz biblia ezagutza berezirik ez duen jende arrunt eta xehearen eskura jartzea izan da, adituagoak ahaztu gabe, noski» (Bibli Elkarte Batuak & Euskal Herriko Elizbarrutiak, 1994: XI). Helburu komunikatiboa, alegia.

Hartzaileak mugatzen du hizkera-maila. EABk bilatu zuena hauxe izan zen: pertsona alfabetatuentzat eta euskaraz irakurtzeko ohituraren bat behintzat bazuten pertsonentzat ulertzeko eragozpen berezirik leporatzen ez zuen hizkera erabiltzea.

Hori lortzeko hiztegi ezaguna eta ahal bestean zabalduena erabiltzea bilatu zen, eta esaldi luzeak eta gramatika-forma korapilatsuak alde batera uztea (aditz-forma gaitz eta oso gutxi erabiliak, adibidez). Guk erabiliko genuen hizkerak kaleko hizkera arruntetik ez zuen alde egin behar, eta egunero egiten zen hizkeratik ahalik eta gertuen egotera jo behar zuen. Irakurteraza izan behar zuen testuak, eta, horrez gain, entzunaz beste barik erraz ulertzekoa. Egia da, bai, Biblia anitza eta askotarikoa dena, eta atal batzuk ia sekula ez direna eskaintzen, beste batzuk, ostera, sarri ere sarri entzun eta irakurtzen direna. Oso gutxi dira irakurketa sistematikoa egiten ausartzen direnak; gehien-gehienek —baita liturgiak ere— irakurketa *selektiboa*

egiten dute. Eta EABk aparteko ahalegina egin du gehien irakurtzen eta erabiltzen diren sail eta atal horietan ulertzeko eragozpenak eta oztupoak ekiditeko edo gutxitzeko behintzat.

Euskal itzulpenak, eta hartan liturgiakoak ere, garbizalekeriak jota egon izan dira, alboko hizkuntzen eragina erabat bazterteaz arduratuta, ezelango mailegurik onartu ezinik, erdal itxurako hitzak erabiltzearen aurkako, hainbestearaino non beste inon erabiltzen ez zen «argota» sortzeraino behin baino sarriago. Horretara, halako arkaiko sunda bat lotu zaie. Ikuspuntu horretatik begiraturaz, EABren hizkerak normaltasun handiagoa erakusten du, aurretiaz presentzia mugatua zuen esparruetara hizkera zabalduz.

Ezaugarri eta bereizgarri horietako batzuk bat datoz liturgiako itzulpenak bere-bereak eta aproposak dituen bereizgarriekin. Beste batzuk, ostera, erabat desberdinak direla esan behar liturgiako itzulpenetan ohikoak izan direnekin: *tradizioarekiko lotura* eta *eliza barrurako zuzendua izatea*, eliztarrentzat egokitua izatea. EAB ez da egin eliz inguruari begira, eliztarrez aparte gizarteko pertsona eta eremuetara egokitu gura izan du, eliz-munduarekin zuzeneko loturarik eta zerikusirik ez duten guneetara zabalduz.

3. Liturgiako itzulpena

Idazlan honen hasieran adierazten genuen: Bibliaren itzulpenak asko dira eta berriro egiten dira; liturgiako itzulpenak, ostera, bakarra izateaz gain, luzaroan irauten du aldatu gabe. Gaurkoak, gaztelaniazkoak eta euskarazkoak behintzat, Kontzilio (Vatikano II) osteko erreformatik datozen itzulpenak dira. Tarte eta desfasea gero eta larriagoa da. Eta argi eta garbi aitortu behar dugu, hala ere, liturgia izan dela eta liturgia dela, kristau-herriaren gehiengoarentzat, Bibliara gerturatzeko bide garrantzitsuena.

Ba ote dago liturgiako itzulpen-eredu bat, ikasketarako, literatura motako, pastoralerako... beste batzuen ondoan? Ba ote dauzka liturgiako itzulpenak aparteko ezaugarriren batzuk, Biblia-itzulpen orokorretik bereizten eta desberdintzen dutenak? Beste era batera, beste aldetik ere egin genezake itauna: ba ote dira liturgian erabiltzeko egokiak diren itzulpen orokorrak? Itzulpenen batzuk bestek baino egokiagoak?

Liturgiako itzulpena bat da, beste itzulpen askoren artean. Hala ere, eskakizun bereziak dituen itzulpena dugu. Beren-beregi, «ad hoc» egitea eskatzen al du apartekotasun horrek? Liturgiako itzulpenak baldintza bi kontuan izan behar ditu: erabileraren testuingurua, eta jasotzaile zehatz eta berariazkoarena.

3.1. Biblia liturgian: liturgiako testuen ezaugarriak

Vatikanoko II. Kontzilioak berrikuntza eta aldaketa handia ekarri zigun, batez ere liturgiaren erreforma bideratuz eta gauzatuz. Jainkoaren Hitzari berariazko lekua eskaini zion liturgian, eta horra hor eliz batzarraren fruiturik ederrenetako bat. Kontzilioak jarri zituen erreformaren oinarriak, printzipioak eta arauak eskainiz, gero

orduen liturgian eta liturgiarako irakurgaietan hezurmamitu eta gorpuztuko ziren bide berriak urratuz:

Elizak benerazio handia izan dio beti Eskritura Santuari, Jaunaren Gorputzari izan dion bezalaxe, liturgia santuan batez ere etengabe hartu eta banatu baitu fededunen artean bai Jainkoaren hitzaren eta baita Kristoren Gorputzaren mahaia eskaintzen duen biziaren ogia (DV: 21)⁷.

Esanguratsua da, benetan, kristau-elkartean Liburu Santuek duten eginkizuna adieraztean, lehenengo puntua, hartan ere, liturgia-ospakizunari dagokiona izatea. Kontzilio osteko liturgia-erreformaren asmo eta helburuetako bat zera izan zen: Jainkoaren Hitzaren mahaia aberastu, «urte batzuen buruan Liburu Santuetako pasarterik esanguratsuenak herriari irakurtzeko» (SC: 51)⁸. Liturgiako Konstituzio horren 35. zenbakian dio irakurgai gehiago, mota gehiagotakoak eta egokiagoak jarri beharko lirakeela⁹.

Printzipio horiek Liturgiarako Irakurgai Liburuetan gauzatu ziren batez ere. Bi nagusietara mugatzen naiz hemen, domeketakora eta astegunetakora. Gurutzatu egiten diren arren, autonomia jagoten dute bi irakurgai-liburuok, eta ezin har ditzakegu elkarren osagarri modura. Ez dira, ezta, baliokideak ere, euren araudi edo normatibitate bidean: astegunetakoak malguagoa da; domeketakoak, ostera, tinkotasun- eta beharrezkotasun-maila handiagoa dauka; gogoan izan dezagun asteroko erritmoa dela ohikoa fededunen gehiengoarentzat. Eta hala eta guzti ere, astegunetako zikloa da Bibliaren irakurketa zabalena eta sistematikoena eskaintzen duena. Bien artean era onean eta balekoan erantzuten diote Eskritura Santua bere pasarte esanguratsuenetan herriari irakurtzeko printzipioari, oso-osorik eskaintzea ere ezinezkoa da-eta.

Irakurgai Liburuaren eraketa korapilatsua da eta ñabardura askokoa, euren erritmo eta ziklo desberdinekin. Liturgian Biblia irakurtzeko moduan dagoen funtsezko bereizketa zera da: etengabeko, jarraiko irakurketa (Eskritura Santuko dena delako liburua bere dinamika eta barruko garapena jagonez egiten dena) eta aukeraketaz egiten den irakurketa (atal hautatuez baliatuz egina). Bi sistemok aurreste desberdinei jarraituz osatzen dira, nahiz eta hemen ez dudan horretaz jardungo.

Bai domeketako Irakurgai Liburuak baita astegunetakoak ere, sistema biak konbinatzen dituzte. Domeketakoan, hiru ziklotan banatuan, liturgialdi nagusiak deitzen ditugunetan eta jai handietakoetan, hiru irakurgaiak elkarrekin koordinatuak egoten dira, eta testuen aukeraketa jaiaren edo liturgialdiaren zentzuak eta gaiak eskatua eta ezarria agertzen da.

Ez da gauza bera gertatzen *per annum* domeketan. Horietan bigarren irakurgaia eta ebanjelioa etenbako/jarraiko irakurketari (nahiz eta beti ez den benetan jarraikoa)

7. *Dei Verbum. Constitutio dogmatica de divina revelatione* (Erroma, 1965). Euskarazko itzulpenerako, ikus Baraiazarra, 2003: 559.

8. SC laburdura erabiliko dugu 1963ko *Sacrosanctum Concilium. Constitutio de Sacra Liturgia* aipatzeko. Dokumentu horren edizio berria da Gil (ed.), 2003.

9. «In celebrationibus sacris abundantior, varior et aptior lectio sacrae Scripturae instauretur» [Itz.: 'Elizkizunetan, Eskritura Santuko irakurgaiak ugariagoak, mota gehiagotakoak eta egokiagoak ezar bitez'] (SC, 35).

lotzen zaizkio; lehenengo irakurgaia, aldiz, Itun Zaharrekoa, ebanjelioko testuarekiko kidesan edo konsonantziaz aukeratzen da. Bibliaren ikuspuntutik, hauxe da seguruenik, antolaketa berriaren alderik eztabaidagarrienetakoa: domekako liturgian Itun Zaharrak duen presentzia erabat partziala eta aldebakarrekoa izatea, eta beraren erabilera ebanjelioko irakurgaiaren menpekotasunean jartzea. Horrela jokatuz, bere-bere testuinguru berezian Itun Zaharreko perikopek duten barruko zentzua behartu egiten da hainbat kasutan.

Desberdina da egoera astegunetako irakurgaien liburuan. Hemen ere sistema biak erabiltzen dira. Liturgialdi nagusietan, ziklo bakarrekoetan, aldiko bereizgarriek eskatzen dutenaren arabera aukeratzen dira irakurgaiak. Hortik aparte, oster, urtean zehar, lehenengo irakurgaietan, ziklo bikoitzean eratuan (urte bakoiti eta bikoitietan), era gutxi gorabehera jarraikoan irakurtzen da Itun Zaharra eta apostoludatziak. Ebanjelioak, berriz, ziklo bakarrean irakurtzen dira.

Biblia-irakurgaiak aukeratzean Itun Berriak —eta horren barruan ebanjelioak— hartzen du, bidezkoa denez, lehentasunezko postua. Itun Zaharrari dagokionez, astegunetako zikloa da ikuspegi osatuena eta batez ere alderdikeria gutxien erakusten duena. Bere presentzia oso urria da domeketako liturgian, bai osoan hartuta nahiz erlatiboki, liburu txikien pila bat agertu ere egiten ez dela, aparteko eran *megillot* edo erroiluak: Kt, Rt, Nk, Qoh eta Est, Qohéleten pasarte bakar bat izan ezik, juduen jai handietan irakurtzen zirenak izan arren. Isaiasek bakarrik dauka garrantzi apur bat, 2. eta 3. Isaiasek berariaz, bereziki abenduan hainbat irakurtzen delako. Kontuan hartzen badugu kristinauen gehien-gehiengoak domekako liturgian bakarrik parte hartzen duela, begi-bistako hutsa da Itun Zaharraren adu txarra. Domeketako liturgiak ez du laguntzen Itun Zaharraren ezagutza lortzera, ezta haren estimazioa izatera ere.

Bada liturgian egin ohi dugun Bibliaren irakurketan azpimarratu eta nabarmendu beharreko gauza bat: irakurketa hori, ezinbestez, zatikatua da, eta bertan «perikopa», sarritan oso laburra eta zatikatua (interes gutxiagokotzat jotzen diren txatalak baztertuz) *a se stante* edo bera beratara esanguratsua den unitate modura eskaintzen da. Testuingurutik kanpo jartzea dakar jokabide horrek, jatorrizko testuingurutik aldentzea. Jarraiko irakurketak zuzendu lezake apur bat arrisku edo akats hori, baina ez da konponbide segurua. Izan ere, jarraiko hori ere ez da beti benetan jarraikoa, eta gainera jarraitutasun horrek indarra galtzen du irakurketa batetik hurrengora dagoen aldi-tarteagatik. Irakurtzeko euren jatorrizko testuingurutik testuak urrundu eta banatzen baditugu, loturarik gabeko perikopa solte modura eskaintzeak arazo larriak sor ditzake, argitzeko eta askatzeko ilun eta korapilatsuak. Bertsio ofizialak elkarketa akastun eta eskasak egiten ditu hainbat bider.

Horrezaz gain, badira aukeraturiko perikopetan egiten diren «manipulazioak» ere. Eta euren bitartez kendu egiten dira txatal batzuk edo irakurgai laburrak iradokitzen dira, eta jokabide horrek kalte ikaragarria egiten die narraziozko testuei; izan ere, kontakizun unitarioak direnez, ilundu egiten dira eta ulergaitz bihurtzen.

Antzinako Israelen esaten zen: «Hori ez da egiten Israelen». Manipulazio hauen aurrean beste horrenbeste esan beharko litzake: «Hori ez da egiten

biblia-kontakizunetan». Alde batera uzten dut sarritan eztabaidatua izan den Salmo Liburuaren auzia. Orduen liturgian ia osorik izan da jaso; hala ere, «giza psikologia»rentzat jasanezinak direla-eta, salmo batzuk eta «madarikaziozko» hainbat bertsikulu eta pasarte baztertu edo kendu dira. Biblia-testuarekiko oinarrizko begiruneak eskatu behar luke, nire ustez, aukeratutako perikopen osotasuna errespetatzea.

Egia da eta aitortu beharra dago Biblia liturgian sartu eta txertatzeko egin den antolamendu berriak aurrerapauso ikaragarria ekarri duena, Kontzilioak Biblia herriari gerturatzeko agertu zuen asmo ederrean. Hona aurrerakuntza batzuk: Jainkoaren Hitzaren ospakizun aldea azpimarratu, liturgian eta sakramentuen ospakizunean Hitzak duen eginkizun nagusia berreskuratu.

Gaur erruz eta zabal esaten da: liturgian ez da Eskritura Santuaren irakurketa egiten, ezpada ze, Jainkoaren Hitzaren aldarrikapena da egiten dena. Hitzaren aldaketak, irakurri/aldarrikatu, aldaketa sakonagoa iragartzen du. Bibliara gerturatzeko ez da gauza bera liturgiako testuingurua eta beste edozein gune. Eskritura Santua baino lehenago bazen Hitza, eta liturgian Biblia ez da idatzizko testua, ahozko testua baino. Liturgia-ospakizunean parte hartzen dutenentzat hitz dugu Biblia eta ez testu.

Idatzizko testua objektiboa da; ahozkoa, ostera, subjektuen arteko gertaera da. Liturgiak Biblia-testu askoren jatorrizko egoera komunikatiboa berreskuratzen du: Moises Moabeko lautadetan herriari berbaldiak zuzenduz, Jeremias Jerusalemgo bizilagunei berbetan, Jesus Galileako itsasertzean parabolak aldarrikatzen... Jarrera eta jokabide hori aintzat hartuz, helburu komunikatiboa kontuan izanik, liturgiarako itzulpenak egin egiten den hizkeratik gertuagokoa izan beharko luke beste edozein itzulpenek baino.

Biblia eta liturgiaren arteko hartu-emanetako beste alderdi batzuek ere garrantzi handia dute, esate baterako «eguneratze/aktualizazio printzipioak» eta komunitario edo elkarte-jiteak. Liturgia bizitzarekiko eta haren problematikarekiko bat-bateko erreferentzian kokatzen da, eta, beraz, testuingurua edo oinarrizko komunikazio-egoera pila bat testuingurutara zabaltzen da, bizitza berarenetara eta eginkizunera. Izan ere, ospakizuna, zeinetan hitza iragartzen den, ez da testuinguru itxi eta autonomia, bizitza daukalako aurretik eta ostean.

Ez da, bada, mezu neutroa, eta liturgiak testuaren pragmatika azpimarratzen du, ekarpena eragiteko eta indar eraldatzailea sortzeko gaitasuna; hitzaren aldarrikapen liturgikoaren funtsezko alderdia da «eguneratze aldea». Horrela, ulertzeari Hitzaren indar kreatzaile eta eraldatzailea gehitzen zaio; «egia»ren alderdiari «praxi»aren alderdia. Itzulpeneko hizkerak, eta hitzaren aldarrikapenak berak zeozelango eragina eta zirrara ahalbidetu behar du entzulearengan.

Liturgiak, bestalde, Biblia Jainkoaren herriarena dela agertzen du eta alde hori sendo eskuratzen du berriro. Herriaren bihotzetik jaio da Biblia eta herriaren bizitzara bihurtu behar du. Eta hori aintzat harturik, itzulpenaren hizkerak jendearen hizkera arruntera gerturatu behar du edozeren gainetik.

3.2. Erabileraren (testu)ingurua eta hartzailea

Liturgiarako itzulpena ezin da jarri, inondik inora, fideltasun betebeharretik aparte eta aske. Ezinbestekoa du oinarrizko testuarekiko fideltasuna. Gorago aipatu dugunez, ostera, gaitza eta konplexua da, benetan, fideltasunaren gaia. Alde batetik jatorrizko testuarekiko leialtasuna jagon behar da, haren hizkuntza formak, haren kultur koordinatuekiko leialtasuna. Eta bada baita, beste aldetik, hartzailearekiko leialtasuna ere, beronen hizkuntz-baliabide, beronen kultur gaitasuna eta kultur testuinguru berezia aintzat hartzen duen leialtasuna.

Liturgiako testuingurura egokitzeak bigarren leialtasun hori jagotera behartzen gaitu berariaz, lehenengorakoa bazterrean utzi gabe, jakina. Izan ere, liturgian Biblia ez da eskritura, testu, hitz aldarrikatua da, testu diskurtso edo esanaldi bihurtua. Eta horrek berekin daroa hartzailea lehenengo mailara pasatzea, eta itzulpenak, orduan, gorengo eta etengabeko ardura izan behar du mezua era ulerterrazean zabaldu eta eskualdatzea.

Testuinguru honetan testua jasotzea arrisku askoren mende gertatzen da, eta itzulpenak arazo horien jakitun izanik, ahalik gehien alboratu edo gutxitu behar ditu arriskuok.

Liturgian Biblia-testuak galdu egiten du bere testu-izate hori, berbazko aldarrikapen bihurtzeko: batek irakurtzen du eta elkarteak entzun. Testua belarrietara doa, eta ez daukagu begien aurrean, berriro hartzeko, berrikusteko, hausnartzeko... Eskrituraren beste erabilera batzuetan funtsezkoa dena, testuaren analisisan edo Bibliaren gogoetan, adibidez, hemen ez da posible. Testu idatzia espaziala da, egonkorra, aldi berean daukat aurrez aurre. Berbazko hitza, ostera, aldibatekoa da, hurrenkerakoa eta ibiltaria; bere soinuek airean dirauten beste irauten du, ez gehiago.

Horrek esan gura du berehalakoa izango dela testuaren ulermena eta harrera. Egia da, bai, errepikakorra dela liturgia, eta ospakizunetan parte hartzen ohitua dagoenak ez duela lehenengoz entzuten testua. Izan ere, testuak aldian behingo erregularitasunez, berriro etortzen dira ospakizunetara. Oihartzun-efektu horrek badauka eragina beste mota bateko testuetan, baina sarritan oztopo eta kaltea dakar une bereko arretarentzat. Edozein aldarrikapen berrik, eraginkorra izan gura badu, zeozelango berritasuna eman behar dio entzuleari, une horretako arreta bultzatu eta bizkortzeko.

Itzulpen orokorretan iruzkinera edo ohar argigarrietara jo ohi da. Itzulpen liturgikoak ez dauka baliabide hori; testuak berak argitu behar du dena, aldarrikapen huts-hutsean. Hauxe da, benetan, liturgiarako itzulpenaren erronka nagusietako bat.

Itzulpen-proiektu oro hartzaile edo jasotzailearentzat egiten da, eta hori helburuaren arabera argitu edo zehazten da. Bibliaren itzultzailea, bere irakurlea «eginez» edo «antolatuz» hasten da lanean. Liturgiarako itzulpenaren kasuan, hartzailea «eraiki» edo «egin» beharrik ez dago; izan ere, emana da aurretiaz. Kristau-elkartea da, eta batzar liturgikoan batua. Eta, zehazki, euskal kasuan, euskal komunitate linguistikokoan partaide den kristau-elkartea, komunitate txikia, beraz.

Gure batzar liturgikoak ez dira nabarmentzen euren bizitasunagatik. Gazte eta ume gutxi dator euretara, eta gainera geldotasuna eta bakoizkeria dira nagusi, edo behintzat eurak gailentzen dira partaiderik gehienengan. Askok eta askok ez dute ikasketarik ez formaziorik Bibliaren inguruan. Eta inor gutxi dauka Biblia berak beratar irakurtzeko ohiturarik. Horrezaz gain, euskaraz ez daukagu eskuko meza-libururik ere. Hori tresna baliotsua izango litzateke elkarteko ospakizunaren osagarri modura, baita liturgiako itzulpenaren erabilera beste eremu eta gune batzuetara zabaltzeko ere, gogoeta-taldeetara, otoitz-taldeetara, eta abarretara. Aspalditik sentitua zen hutsune hori betetzea izan zen liturgiako testuak berrikusteko proiektua bultzatu zuten arrazoietako bat, nahiz eta ez izan bakarra.

Hartaileaganako lehenasunezko arreta hori, gainera, irizpide pedagogiko eta pastoralekin bat dator. Eta irizpideok izan dira antolamendu liturgikorako Jainkoaren Hitzaren hautaketa egiteko erabili izan direnak, helburu nagusiaren bila: Bibliaren ahalik eta kopururik handiena eman Jainkoaren herriari, egokiera jokabidez, zatirik ilun eta korapilatsuenak ekidin edo baztertuz, eta eskuragarrienak eta esanguratsuenak pribilegiatuz.

3.3. Liturgiako itzulpenaren berezitasunak (ezaugarriak)

Liturgiako itzulpenak ezin ditu albo batera utzi bere harreraren baldintzak. Ageriko aldarrikapenerako testua, eta azterketarako edo gogoetarakoa ez da gauza bera.

Liturgiako itzulpenak beste edozeinek baino gehiago eskatzen du baliokidetasun funtzionalaren eredia era sistematiko eta bidezkoan ezartzea. Paradoxikoa dela aitortu behar da liturgiako itzulpenek, eta zehazki euskarazkoak, jatorrizko testua literalki berriro esateko duten joera hain nabarmena. Baina, egia esan, ez da mira egitekoa ere, itzulpena eskaini diguten itzultzaileek bizi izan duten aldi historikoa eta izan dituzten baldintza psikologikoak aintzat hartuz (ia buruz zekiten Vulgatako esamoldeetatik urruntzeko eragozpena, adibidez). Aldi hartan, ez zegoen ezta itzulpenaren teoria eta praktikaren inguruko gogoeta esplizitu eta arrazoizkorik ere. Beraz, emaitza eta ekarpena hurrengo hauxe: bere jomuga bereziko, aldarrikapen liturgikorako, gutxi egokituta dagoen itzulpena.

Itzulpen liturgikoak bidezko den erraztasuna lortu behar du.

Irakurteraztasuna, lehenengo. Ahozko komunikazioaren mugabako xehetasun eta ñabardurak (etenaldiak, azpimarrak, elkarrizketaren edo kontakizunaren intonazioak, poesiako edo himno taxuko pasarteen erritmoa, tarteak...) oso garrantzitsuak dira. Eta gora txikikoa dela uste izan genezakeen puntuazioak ere arreta berezia merezi du. Beharrezkoa dena baino hainbat ugariagoa erabiltzea komeni da liturgian. Horrela, argi eta garbi azpimarratzen dira esanaldiaren eta irakurketaren arrazoizko etenaldiak. Hori guztia aintzat hartuz gero, itzulpeneko testua osatzen dugun artean ere egiaztatu egingo dugu ea ageriko irakurketa-aldarrikapenerako egokia den.

Eta ulerterraztasuna. Aukera hau geureganatzeak ezinbestean eskatzen digu baliokidetasun dinamiko-funtzionaleko itzulpen moduak bere-bereak dituen

baliabide propioak etengabe aplikatzea, bai esplizitazioaz (elipsietan, gainulertuetan, anaforiko edo errepikatueta, lotura bitartekoetan...) baita signifikatuaren argibidez ere, harako San Jeronimok esana *non verbum e verbo, sed sensum exprimere de sensu* aintzat hartuz, testuaren adiera emanez, ez hitzak hitzen truk, beste barik. Jatorrizko testuan behingoan ulertzekoa zen adierazpideak holantxe izan beharko du oihartzuna lortzen duen testuinguru berrian ere.

Liturgiarako itzulpenak ekidin egin beharko du hiztegi gaitza edota goi-mailakoa; eta baztertu egingo ditu ulermena eta bat-bateko ulermena larriki oztopatzen duten esaldi luze eta korapilatsuak. Denok ondotxo dakigunez, esaldi labur eta xumez egindako testua errazago da irakurtzeko eta ulertzeko, esaldi luze eta nahaspilatsuz egindakoa baino. Egia esan, oztopoak gutxitu egiten dira narraziozko testuetan, kontuan izanik, gainera, Bibliako kontakizuna nahiko arteza eta lineala dela eta bere osagai funtsezkoetan batua. Liturgiarako itzulpenak, baina, hemen ere zehatz eta arduraz jagon behar ditu sarrerak, trantsizioak, narrazio-loturak...

Eta berbaldi logikoen aurrean aurkitzean, sarritan atal luze eta korapilatsuz eginak izan ohi direnez, testu zatia desegitea izango da ezinbestezko, eta esaldi asko laburragoz eta xumeagoz berregitea. Biblia-liburu askotan liturgiarako itzulpenak berregituratze-eginkizuna eskatzen du, azaleko egitura formalak sakon eraldatzea. San Pauloren gutunen sarrerak ditugu adibide garbi.

1Ko 1,1-3ko agurrean, esaldi bakarra dago, informazio piloa eskainiz. EABk, liturgiarako bertsio berriak erabat eta oso-osorik onartu duen itzulpenean, zatikatu egiten du testua hiru esalditan aditzera emanez.

Pablo, llamado a ser apóstol de Cristo Jesús por la voluntad de Dios, y Sóstenes, el hermano, a la Iglesia de Dios que está en Corinto: a los santificados en Cristo Jesús, llamados a ser santos, con cuantos en cualquier lugar invocan el nombre de Jesucristo, Señor nuestro, de nosotros y de ellos, gracia a vosotros y paz de parte de Dios, Padre nuestro, y del Señor Jesucristo (BJ. 1Ko 1,1-3).

Nik, Paulok, Jainkoak hala nahirik eta berak deiturik, Jesu Kristoren apostolu naizen honek, eta Sostenes anaiak Korinton dagoen Jainkoaren eliz elkarteari idazten diogu. Jesu Kristok sagaratu zaituzte eta Jainkoak bere herri santu izateko deitu, edozein lekutan Jesu Kristo gure Jaunari dei egiten dioten guztiekin batera, hauek eta guk Jaun bat bera onartzen baitugu. Jainko gure Aitak eta Jesu Kristo Jaunak eman biezazkizute grazia eta bakea (EAB. 1Ko 1,1-3).

Edozein itzulpenetan azaltzen den eragozpen hori, larriagoa egiten da euskaran, hizkuntzaren egitura sintaktikoa tarteko: «Para alabanza (1) de la gloria (2) de su gracia (3)» hitzen katean, euskaraz ordena erabat alderantzizkoa da eta osoan bestetara doa: «bere graziaren (3) aintzaren (2) gorespenerako (1)», eta esaldietan ere mezuaren giltza den elementua (aditz nagusia) azkenean kokatzen da.

Erromatarrei zuzendutako gutunaren «agurra» zazpi bertsikulu hartzen dituen esaldi bakarra da, eta lau bertsikulu erlatiboz hasten dira, kateatze osoa erlatiboez baliatuz osatzen dela. Erlatiboa euskaran determinatzen duen *sustantiboaren aurretik* doa normalean. Ezinbestekoa da berregituratze-beharra.

BJ (Rom 1,1-8)

Pablo, siervo de Cristo Jesús, apóstol por vocación, escogido para el Evangelio de Dios,
que había ya prometido por medio de sus profetas en las Escrituras Sagradas,
acerca de su Hijo, nacido del linaje de David según la carne,
constituido Hijo de Dios con poder, según el Espíritu de santidad, por su resurrección
de entre los muertos,
Jesucristo Señor nuestro,
por quien recibimos la gracia y el apostolado,
para predicar la obediencia de la fe a gloria de su nombre entre todos los gentiles,
entre los cuales os contáis también vosotros, llamados de Jesucristo,
a todos los amados de Dios que estáis en Roma,
santos por vocación,
a vosotros gracia y paz,
de parte de Dios nuestro Padre y del Señor Jesucristo.

EAB (Erm 1,1-8)

Nik, Paulok, Jesu Kristoren zerbitzari honek, idazten dizuet. Jainkoak deitu ninduen apostolu izateko eta Liburu Santuetan profeten ahoz aurrez agindua zeukan berri ona hots egiteko. Berrion hau Jainkoaren Semeari buruzkoa da, Jesu Kristo gure Jaunari buruzkoa, alegia: berau giza jatorriz Daviden hazitik jaio zen; baina, hildakoen artetik piztu zenez gero, santu egiten duen Espirituaz Jainkoaren Seme ahaltzu egina izan da.

Jesu Kristogandik hartu dugu apostolu izateko dohaina, gentil-herriei sinesmena eramateko eta fedezko erantzuna haiengan sortzeko. Hauetakoak zarete zuek ere, Erroman bizi zaretenok. Jainkoak maite izan zaituzte eta Jesu Kristoren elkarteko eta bere herri santu izateko deitu.

Jainko gure Aitak eta Jesu Kristo Jaunak eman biezazkizute grazia eta bakea.

Biblia-liburuaren liturgiarako itzulpena egitean egiazko berregituratze-beharra ulertzeko, ikus dezagun halaber 1Jn 1,1-4 testua:

BJ

Lo que existía desde el principio.
lo que hemos oído,
lo que hemos visto con nuestros ojos,
lo que contemplamos
y tocaron nuestras manos
acerca de la Palabra de vida,
-pues la Vida se manifestó,
y nosotros la hemos visto y damos testimonio
y os anunciamos la Vida eterna,
que estaba vuelta hacia el Padre y que se nos manifestó-
lo que hemos visto y oído,
os lo anunciamos,
para que también vosotros estéis en comunión con nosotros.
Y nosotros estamos en comunión con el Padre
y con su Hijo Jesucristo.
Os escribimos esto
para que nuestro gozo sea completo.

EAB

Hasieratik zen biziaren hitza, entzun eta geure begiz ikusi duguna, begiratu eta geure eskuz ukitu duguna, iragartzen dizuegu. Izan ere, bizia agertu egin zen, ikusi egin dugu eta beronen lekuko gara; Aitarekin zegoen eta guri agertu zitzaigun betiko bizia iragartzen dizuegu. Ikusi eta entzun duguna dizuegu zuei ere iragartzen, zuek ere gurekin elkartasunean bizi zaitezten. Eta gure elkartasuna Aitarekin eta honen seme Jesu Kristorekin da. Eta gauzok idatzi, gure poza bete-betea izan dadin idazten ditugu.

Itzulpenak lagundu lezake eta laguntza eman behar du, modu erabakigarrian, Biblia-testua ulergarriagoa eta eskuragarriagoa egiteko, baita berariazko hartzaileaganako gertukoago egiteko ere. Beti ez dira posible gogobeteko irtenbide asegarriak, jakina. Dena dela, labur bada ere, zeregin gaitz hori ahalbidetzen duten itzulpen-prozedura bihurtzen diren printzipio batzuk seinalatzen ditut, helburua lortzeko itzulpen-prozedura praktikoa bihurtzen direnak:

- *Esplizitazio*-printzipioa (testuan implizitu dagoenarena).
- *Esanahia argitzearen* printzipioa (forma hutsaren gainetik testura esanahia pasatuz).
- *Kontzentratua zabaltzearen* printzipioa (Biblia-berbetea, Paulorena zehazki, oso kontzentratua da sarri askotan: badira hainbeste adierazpen eta esaldi benetan ulergaitzak eta geureganatu ezinak lehenengo irakurketa batean. Esaterako, Rm 1,5: «En orden a (eis) la obediencia de la fe a gloria de su nombre entre todos los gentiles» / EAB: «Jentil-herriei sinesmena eramateko eta fedezko erantzuna haiengan sortzeko»).
- *Zatitze*-printzipioa (esanaldi luzeak laburretan zatikatuz emanez itzultzea).
- *Erlazio- edo lotura*-printzipioa (kontu handiz eta arduraz jokatu beharra izango dugu konexio eta loturekin, batasun-baliabideak argituz, bai narrazioetan baita arrazoiketetan ere). Bada kasu bat arreta berezia eskatzen duena, irakurgaiaren hasierena. Biblia-testua liturgian etenez eta jarraitutasun barik agertzean, hutsuneak sortzen dira, eta pasarte aukeratua bere jatorrizko testuingurutik aldendu eta banatzean, ezinbestezko egiten da testuinguru zabalagoan argi zeuden bitartekoak seinalatu eta esplizitatzeari.

3.4. Euskal itzulpenaren berrikusketa

Orain urte batzuk (1999), EAB euskaraz egin genuen artean, beste helburu baterako prestatutako batzar batzuetan, apur bat itsumustuan eta ustekabean, sortu zen euskarazko liturgiarako Bibliaren, Irakurgaiaren eta Salmodiaren berrikusketa egiteko asmoa.

Berrikusketa hori atzeraezina zen. Alde batetik, liturgiarako hizkuntzan hizkuntza batua onartu beharra sentitzen zen aspalditxotik. Sarritan aurretik joan izan garenok, atzeratuta genbiltzan. Nahiz eta, egia esan, hizkuntza batua eliz elkartean, liturgia arloan berariaz, onartzeak arazo larriagoak sorrarazten edo eragiten dituen gizarteko, irakaskuntzako, komunikabideetako, administrazioko... beste inguru batzuetan baino.

Aurretiaz geneukan itzulpena, gainera, ez zen hain ona, ez hizkuntza aldetik ezta itzulpenaren beraren kaudimen eta fidagarritasunaren aldetik. Ez zeukan behar besteko zehaztasun ez koherentziarik.

Horrezaz gainera, eraberritze eta eguneratzea eskatzen zuten beste alderdi batzuk ere nahiko argiak ziren. Esaterako, hizkuntza sarritan arkaiko samarra gertatzen zen, sasoiko garbizalekeria tarteko, orduko itzultzaileen jitea eta idiosinkrasiaren eraginez. Aldi hartan ez zeukan indar modurik hizkuntza inklusiboak, genero-arlokoak zehazki, eta hori ez zen benetan ezelango arazo, ez zegoelako generoaren inguruko ardurarik ez sentiberatasunik.

Eskuetan geneukan bertsioaren berrikusketa ezinbestekoa eta atzeraezina egiten zuten barruko arrazoiez gain, beste gertakizun erabakigarri bat ere hor geneukan azken urteetan: Bibliaren itzulpen berria (1994), ezaguna izaten eta asko zabaltzen ari zena. Bere aparteko merituagatik ez bada ere, eragin handia izan du gure artean, bera delako euskara batuan daukagun Biblia bakarra, irizpide zientifikoekin eta gaurko hizkeran egina izan dena.

EABk ez zeukan ofizialtasunik, eta itzulpena ez zen helburu liturgikoaz egina. Egia esateko, eliz mundua ez zen ezelan ere bere erreferente nagusia. Bazituen, ostera, gorago aipatu dugunez, beste ezaugarri batzuk, eta hauek berariaz aproposa egiten zuten erreferente modura onartzeko, liturgiarako geneukan itzulpena berrikusi eta aztertze orduan. Baliokidetasun dinamiko funtzionalaren eredua aukeratu izanak eta helburu komunikatiboaren alde jokatu izanak berebiziko lagungarri bihurtzen zuten EAB liturgiarako itzulpena moldatzerakoan.

Irakurgaien liburuaren berrikusketa planteatu zenean, aukera desberdinak geneuzkan:

1. EAB onartu, dagoen-dagoenean. Aukera honek hor zituen bere eragozpenak. Izan ere, EABk ez zuen izan, ezelan bere, helburu liturgiko hori.
2. Eskuetan geneukan eta erabiltzen genuen itzulpenaren hizkuntza aldetiko berrikusketa egin. Aukera hori gutxiegi zela ikusten genuen, eskas eta urritzat jo zen aukera.
3. Itzulpenaren berrikusketa sakonagoa egin, konparatze eta alderatzerako EAB aurrean izanik eta haren aukerez baliatuz.

Liturgiarako geneukan bertsioa oinarri modura hartuz, EABekin alderatu da perikopaz perikopa, elizen artekoaren ekarpenak bertsio berrian ugari sartuz.

Ramon Irizarrek berak (goian bego) osatu zuen lehenengo egokitze hori. Eta gero, taldekide bakoitzak berrikusten izan du, baita elizbarruti desberdinetako ordezkari ziren beste lankide edo laguntzaile batzuek ere. Ekarpene guztiak taldean eztabaidatzearen fruitu da behin betiko eta azken bertsioa.

Mundutxo honetan gabiltzanok ondo dakigu liturgiarako itzulpenak badituela, bidezko denez, bere eskakizunak, tradiziotik eta erabilera liturgikotik eratorriak. Testu guztiak ez dira maila berekoak. Testu batzuekin aparteko begirunez, kontu

handiz eta zuhurtasunez jokatu behar dugu itzultzaileok; esaterako, *Gure Aita* ezin da geure gulerira eta merke aldatu, eta tentuz ibili behar dugu *Magnificat*, *Nunc dimittis* eta askok buruz ezagutu eta errepikatzen dituzten testu, salmo, berba eta liturgian ohiko diren Bibliako adierazpen askorekin.

Lan handia izan den arren, eta etenaldi luze eta deserosoak ezarri dizkiguten arren, egokitze-lana bera eragozpen handi barik eta nahiko epe laburrean osatu dugu (genuen), bateragarri eta elkartzeko modukoak egin zaizkigulako EAB eta liturgiako itzulpena. Lortu genuen fruitua nahiko oparoa izan zela deritzot. Orain dela dozena bat urte nire lagun eta lankide Ramon Irizarrek bere guraria agertzen zuen: ea bertsio berri hau laster batean denen eskuetan jartzen dugun. Baina gauzak astiro ere astiro joan dira. Harrezkero, hainbat gehigarri ere egin zaizkio Meza Liburuari (Aldareko Liburua, gehi Irakurgaiak) eta oraintxe dago Erroman, baimen ofizialaren zain.

Elizbarruti arteko Liturgi Euskaratzaile Taldearentzat pozgarria izango da, euskal elizbarrutietako ordezkarien partaidetzaz osatutako itzulpen bakarra, hiru eratara moldatua beti ohi dugunez, geure kristau-elkarteei aurkeztu ahal izango diegun eguna. Betor laster!

Bibliografia

- AA.VV. (1967): *Biblia de Jerusalén. Edición Española*, DDB, Bilbo.
- , (1992): *La Biblia*, La Casa de la Biblia - PPC, Madril.
- Alonso Schökel, Luis (1993): *Biblia del Peregrino*, Mensajero, Bilbo.
- Baraiazarra, Luis (itz.) (2003): *Vatikanoko II. Kontzilio Ekumenikoa. Konstituzioak, dekretuak, adierazpenak eta dokumentu osagarriak. Euskaraz eta latinez*, Deustuko Unibertsitatea, Bilbo.
- Bibli Elkarte Batuak & Euskal Herriko Elizbarrutiak (1994): *Elizen arteko Biblia*, Idatz, Lazkao-Donostia.
- Buzzetti, Carlo (1976): *Traducir la palabra: aspectos lingüísticos, hermenéuticos y teológicos*, Verbo Divino, Lizarra.
- , (1986): *La Biblia y sus transformaciones. Historia de las traducciones bíblicas y reflexiones hermenéuticas*, Verbo Divino, Lizarra.
- Conferencia Episcopal Española (ed.) (2010): *Sagrada Biblia. Versión oficial de la Conferencia Episcopal Española*, Biblioteca de Autores Cristianos, Madril.
- Duvoisin, Joanes (1972 [=1859-1965]): *Bible Saindua*, Biblioteca de la Gran Enciclopedia Vasca, Bilbo.
- Gil Hellin, Francisco (ed.) (2003 [=1963]): *Sacrosanctum Concilium. Constitutio de Sacra Liturgia*, Libreria Editrice Vaticana, Città del Vaticano.
- Irizar Arabaolaza, Ramón [O.F.M.] (1995): «Elizen arteko biblia eta itzulpengintza», *Uztaro*, **15**, 67-79.
- , (2002): «La traducción del leccionario litúrgico en el contexto de la traducción bíblica general», *Lumen*, uztaila-urria, 297-328.
- Kerexeta, Jaime (1976): *Euskal Biblia*, Bilbo'ko Elizbarrutiko Gotzaintza, Bilbo.
- Olabide, Erraimun [S.J.] (1958): *Itun Zarr eta Berria*, Yesuren Biotzaren Deya, Bilbo.

